



BEZERO-KANALAK

Zer dira bezero-kanalak?

Bezero-kanalak dira gure produktua jendearengana iristeko moduak. Kanal hauen bidez azalduko dugu nola funtzionatzen duen gure kaxa adimendunak eta zein onura dituen. Era berean, bertatik laguntza edo informazioa ere eman ahal izango dugu.

Nola komunikatuko gara? (Komunikazio-kanalak)

Gure komunikazioa, batez ere, sare sozialen bidez egingo dugu, gaur egun gure bezero potentzial gehienak (ikasleak eta gazteak) bertan daudelako. Horrela, azkarrago eta modu eraginkorragoan iritsiko gara haiengana.

Sortuko ditugun edukiak izango dira:

- Produktua azaltzen duten bideoak
- Mugikorra gehiegi erabiltzeak dituen ondorioak azaltzen dituzten bideoak
- Informazio praktikoa eta erraza

Webgunea eta telefono bidezko laguntza

Salmentarako eta kontakturako web orri bat izango dugu. Webgunean:

- Produktua erosi ahal izango da
- Informazio gehiago eskuratu ahal izango da
- Zalantzak bidaltzeko aukera egongo da

Horrez gain, telefono zenbaki bat jarriko dugu bezeroek deitu ahal izan dezaten. Horrela, gurekin kontaktuan jartzeko aukera erraza eta zuzena eskainiko dugu.